

BARAZKI BILA

GABEZIAK:

·Mire bizilekua ez ezik, barraskilo, bare eta zizareen bizilekua ere bada.

E

L

U

·Hostoak zikin dauzkadanez, garbitu egin behar ditut!

·Laino beltza daukat buru gainean, zer botako digu?

·Hostoak horitzen ari zaizkit, egarriak nago!

·Orain behar duguna nekazariak ekarriko digu errekatik.

·Hostoak tantaz beteta ditut. Zeren tantak dira?

·Gu jan aurretik garbitu egin beharko gaituzue, baina zerekin?

·Egun asko dira eguzkitan erretzen ari garela, zer behar dugu?

BARAZKI BILA



HELBURUA:

Jolasaren bitartez irabazten dituzten fruta/barazkiei esker, baserritarrari baratzea osatzen lagundu gela osoaren artean.




MATERIALA:

1. Koloretako zapiak (urdina=ura; marroia=lurra; horia=eguzkia), bakoitzetik 3 zapi.
2. Zapiak zintzilikatzeke 3 euskarri.
3. Barazki eta fruten irudiak.
4. Saria (margotzeko irudiak).

BARAZKI BILA

JOLASA:

1. Gela 3 taldetan banatuko dugu. Jolas gunearen alde batean 3 taldeak jarriko dira, eta beste aldean zapien euskarriak.



2. Talde bakoitzeko kideei zenbaki bana emango diegu ietik hasita. Horrela, hiru kidek 1 zenbakia izango dute, beste hiruk 2 zenbakia...

3. Euskarri bakoitzak 3 zapi izango ditu kolore ezberdinetakoak, hau da, urdina, horia eta marroia.

4. Begirale batek gabezi bat irakurriko du eta, taldearen artean erantzuna pentsatzeko denboratxo bat utzi ondoren zenbakia esango du.

5. Zenbaki hori duten 3 kideak, hau da, talde bakoitzetik bat, aterako dira korrika gabezi horri aurre egiteko behar duten koloreko zapia hartzera. Adb; "Aspaldian euririk es du egin eta landareak zimelduta daude" gabezi honi aurre egiteko zapi urdina (ura) hartu beharko dute.

6. Zapia hartu ondoren korrika abiapuntura itzuli beharko dute. Zapi egokiarekin aurrena bere abiapuntura heltzen denak 2 barazki/fruta irudi lortuko ditu. Beste taldekoak ere zapi egokiarekin itzuli badira irudi bana lortuko dute. Zapia egokia ez bada, soroa osatuko duen artoa edo gariaren irudia lortuko dute.

7. Gabezi guztiak aurkeztu ondoren, ez da irudi gehiago banatuko. Jolasa bukatu da.

8. Lortu ditugun barazki/fruten zenbaketa egin ostean, planteamentua aurkeztuko diegu:

"Baratzeari osatzeko ahalik eta barazki/fruta gehien lortu behar ditugu. Horrela, gelakide guztien artean lortutako produktuak beharrezkoak izango dira baratzeari osatu ahal izateko". Baina, baratzaren ordean soroa osatzea ere gerta daiteke gabeziei aurre egiteko erantzuna askotan okerrakoa izan bada.

9. Hain guztia aurkeztu ostean, umeei sari bana banatuko zaie. Saria margotzeko irudiak izango dira: urtaroko bakoitzari dagokion barazki/fruta irudiekin.

BARAZKI BILA



Eskolako Agenda 21

LH I. zikloa



GABEZIAK:

E L U

·Azken egun hauetan euri pila egin du, eta blai eginda gaude! Beroa behar dugu!

·Orain hostoak busti-busti ditut eta lehortu behar ditut!

·Zuhaitzaren itzalak beregandik babesten nau.

·Beroak hostoak zimeltzen dizkit, baina nork emandako beroak?

·Argitasunak indartu egiten nau, baina nork ematen dit indar hori?

·Egarririk EZ dut, janaria behar dut!

·Gu landatzeko zulo handi bat egin dute. Zerekin bete dute zuloa?

·Zerekin estaliko dituzu nire haziak etxera eramaten dituzunean?

·Hostoak marroi-marroi dauzkat, non zikindu ditut?

·Etxeko lorontziak betetzeko zaku batzuk ekarri dira, zerenak?